



Zaldiak, musika eta argiak uztartuz, ikuskizun berezia Pottok zalditegian

ZIZURKIL ▶ Gaur gauean eskainiko dute 'Pottok 06 musiketari'; «inguruan ez da horrelakorik egin» ▶ 4



Zaldunak eta musikaria, entsegu batean; gaur ere musika zuzenean joko dute. GARI GARAIALDE / ARGAZKI PRESS



I. TERRADILLOS

Gaur ere aspertzeko astirik ez sanpedroetan

TOLOSALDEA-LEITZALDEA ▶ Areson, Asteasun, Leaburun eta Urkizun egitarau zabala prestatu dute goizean goizetik hasita ▶ 6



TOLOSA ▶

Jazz eta blues doinuek liluratuta

Tolosandblues-ek hartu du herria; «urrats handia» eman dute programazioan ▶ 2

Iñigo Martin antolatzailea. N. L.

LEITZA ▶

Gorritaran auzoan ere festa girorik ez da faltako

Txintxurrin txapelketa ezaugarri da ▶ 7



Txintxurrin txapelketa, iaz. J. ASTIBIA

TOLOSA ▶

«Tolosarron abestiak» 'Tolosako Musika' bi diskoetan bildu dituzte

Tolosako Musika Banda, Udal Txistulari Banda eta Tolosako Orfeoia aritu dira ▶ 3

ALEGIA ▶

Denboraldi «borobila» Intxurre Pilota Eskolak

54 neska-mutilek jardun dute ▶ 5

MUSIKA ▶

Harmonikaren magia ezagutzen

Bihar arte, jazz eta blues doinuekin gozatzeko parada izango da II. Tolosandblues jaialdiaren harira

NOELIA LATABURU

Dagoeneko lehen kortsuak entzun ahal izan zituzten atzo blues eta jazz musika zaleek, Tolosandblues jaialdiaren harira. Izan ere, Iñaki Salvadorrek lehen kontzertua eskaini zuen, tolosar mordoaren aurrean. Musikaria «pozik» azaldu zen kontzertuaren aurretik, «Tolosan beti adeitasun handiz» hartzen dutelako. Bere lan guztiak Tolosan aurkeztu izan dituela aitortu zuen, eta hori musikariarentzat «oso garrantzitsua da».

Ekimen honetan parte hartzera gonbidatu dute, eta hori «ohoretzat» definitu zuen piano-jole donostiarrak. Bere garai bertsioak aurkeztu zituen atzokoan, besteak beste, Fito Paez, Silvio Rodriguez, Joan Manuel Serrat eta Mikel Laboa

bezalako musikarien piezak. Hala, bere bi zaletasunak bildu nahi izan zituen, «jazza eta kantautoreen musika». Ainara Ortega abeslari gaztearen aho-tsak osatu zuen bere emanaldia.

Gaur, «garrantzitsuen»

Antolatzaileek «garrantzitsuen» jo duten emanaldia, Paul Lamb & The King Snakes taldearena, gaur izango da, 22:00etatik aurrera, Plaza Berrian. Jendeak ondo har dezala espero dute; izan ere, «Europako blues musikaren erreferentzia nagusia da taldea». Paul Lambek, gainera, 60ko hamarkadan Ameriketako benetako blues musikari gazteengan eragin handia izan zuen, besteak beste, Eric Clapton edota Peter Green musikariengan.



Musika ona entzun ahal izango da egunotan Tolosan; argazkian, iaz, The Blues Blaster 's taldea. J. S.

ÍÑIGO MARTIN ▶ TOLOSANDBLUES-EN ANTOLATZAILA

Urte hasieratik buru-belarri aritu da Iñigo Martin Tolosandblues jaialdia osatzen duten emanaldiak lotzen. HITZAREKIN solasean aritu da blues eta jazz jaialdi honen nondik norakoen gainean.

Bigarren edizioa da aurten goa. Lehenengoak ez zuen, ordea, esperotako harrera izan.

Hori dela-eta urrats garrantzitsu eman dugu programazio aldetik, batez ere nazioarte mailan ospe handia duen harmonika-jolea ekarri dugulako, Paul Lamb izarra. Itxaropen handia dugu emanaldi honekin. Espero dugu jendea biltzea Plaza Berrian.

Berrikuntzarik barneratu al duzue aurten?

Ildo beretik jarraitzen dugu; berrikuntza bihar [gaur] arratsaldean Amama Luisa Big Band euskal taldeak kalez kale emango duen emanaldia da. Halaber, Naco Goñi, Francisco Simon eta Edu Big Hands lehen aldiz joko dute elkarrekin.

Gaur [atzo] izango da lehen emanaldia Iñaki Salvadorren eskutik. Zer espero duzue?

Jazz munduan urteak daramatza eta bere azken diskoa, *Canciones*, aurkeztuko du. Tolosa ezagutzen du eta espero dugu jendea biltzea bere emanaldian. Ainara Ortega, Asier Oleaga eta Josu Izagirrekin batera ariko da. Oso emanaldi interesgarria izango da.

Izen handiko talde bati bere-

«Programazioan urrats handia eman dugu eta jendetza bildu nahi dugu»

ziki goraipatu duzue: Paul Lamb & The King Snakes.

Hiru hamarkada daramatza blues munduan, Ingalaterran eta Europan aski ezaguna da, musikari onenekin alderatu daitekeena. Pentsa, urtean 250 kontzertu inguru eskaintzen ditu.

Zaila izango zen izarra Tolosara ekartzea.

Ez pentsa, zorte dezente izan dugu. Izan ere, gaur [atzo] Kanariar uharterean (Espainia) dago, eta Ingalaterrako bidean doala Tolosan egingo du geldialdia.

Nola sortu zen, bada, ekimena?

Nik Udalarri proposatu nion ea posible zen blues jaialdia antolatzea. Ideia ondo iruditu zitzaion eta elkarlanean urtean zehar antolatzen ditugu emanaldiak. Xume hasi ginen iaz, eta aurtien hobetu egin dugu eskaintza.

Eta zergatik Tolosan?

Ikusi genuen herriak har zeka-keela gisa honetako ekitaldirik. Izan ere, askotan blues edo jazz ona entzuteko Getxora edo Donostira joan beharra



NOELIA LATABURU

dago. Demostratu nahi genuen herrian ere badugula maila berean musika hori entzuteko aukera.

Ba al du jarraitzailerik musika mota honek herrian?

Ez ditu jarraitzaile gehiegi blues-ak, baina ezagutzen ez duen jendeak musika hau entzun ondoren liluratuta gertatzen da, sorpresa atsegina hartzen du, musika alai ere badela ohartzen baita. Blues musikak garapena izan du, ez da jada garai bateko musika tristeia; bere instrumentuen

doinuak, harmonikan eta gitarran, esaterako, alaiagoa da.

Zein lan burutu duzu zuk?

Taldean aukeraketarekin lagundu dut programazioari begira eta komunikabideen aurrean azalpenak emateko arduraren ere badut.

Nola erakarri jendea?

Esanez hemen topatuko duten maila benetan ona dela, ahaztu gabe kontzertu guztiak doakoak direla eta beraz anima daitezela musika honekin gozatzera eta ezagutzen ez dutenentzat, hura ezagutzera. ◀

TOLOSAKO LASKORAIN IKASTOLAK

GOIZETARAKO BI LANGILE BEHAR DITU

1-Magisteritzako titulua
Haur Hezkuntzako berezitasunekoa duena. Erref.: HH

2-Haur Hezkuntzan goi mailako teknikaria. Erref.: THH

- Derrigorrezkoa: EGA titulua edo baliokidea.
- Ingelesaren ezagutza baloratuko da.
- Curriculurak e-mailez bidali behar dira tolosa@ikastola.net zuzenbidera. Jasoko diren azken eguna, uztailaren 5a.

TOLOSA ▶ MUSIKA


Udal Txistulari Bandak eta Musika Bandak zenbait doinu jo zituzten herenegun, aurkezpenean. E. EZEIZA

«Tolosarron abestiak» bi CDtan bilduta

750. urteurrenerako egindako 'Tolosako Musika' izeneko bi disko aurkeztu zituzten herenegun, Musika Eskolan

ESTI EZEIZA

Herenegun, Tolosako Musika Eskolan, *Tolosako Musika* CD berriaren aurkezpena egin zuten. Ekitaldian parte hartu zuten Luis Mari Garcia Tolosako Musika Bandako zuzendariak, Iñaki Letamendia Udal Txistulari Bandako zuzendariak, Maitte Chocano Tolosako Orfeoiko kideak, Txema Garces CDeetako ekoizle artistikoak, Kutxako ordezkariak, Jokin Bildarratz Tolosako alkateak eta Gurutze Zubeldia Tolosa 750 Fundazioako koordinatzaileak. Era berean, aurkezpenaren ondoren, Udal Txistulari Bandak eta Musika Bandak CDeetako zenbait doinu interpretatu zituzten zuzenean.

Bi CDetan Tolosako Udal

Txistulari Bandak eta Musika Bandak Tolosako Orfeoien laguntzarekin interpretatutako doinu tradizionalak bildu dituzte. Ekimen hau Tolosa 750 Fundazioaren eta Kutxaren arteko ekarlanaren bitartez burutu da. Alkateak adierazi zuenez, «Tolosa 750. Urteurrena Fundazioaren helburuetako bat hainbat ekitaldi antolatzea zen, eta gerora geratutako diren dokumentuak lortzea. Hain zuzen ere, urtean zehar egindakoak bildu eta berreskuratzea, datorren belaunaldiari utzi ahal izateko».

Tolosa 750 Fundazioak CD hauetan denboran zehar irauten dituen doinuak bildu nahi izan ditu, Tolosako zein bere biztanleen historiaren zati diren doinuak, alegia. «Disko bereziak

dira tolosar guztiontzat, maitagarriak eta ezagunak». *Tolosako Musika* grabatzeko ekimena Tolosako Musika Bandaren eta Udal Txistulari Bandaren eskutik sortu zen, beraien herria 31 kantu tradizionalen bidez omentzeko asmoz. Hauek Elkar estudioetan grabatu dira apirila eta maiatza bitartean eta Txema Garces tolosarra arduratu da produkzio artistikoz.

CDak Tolosaldea Tour-en (Santa Maria Plaza, 1.943.69.74.13) daude salgai dagoeneko. Kultur Etxean eskuragarri egon diren gonbidapenekin —edonork jaso zezakeen— herriko turismo bulegora joanez gero, erosleak beherapena izango du CDak erosterako orduan.

IBARRA ▶ MOTORRA

IV. Langostino Moto Festa iritsi da eskualdera

Motorra eta jaia uztartuz, 250 motozaletik gora elkartuko dira gaur eta bihar Ibarrran



Pasa den urteko jaialdiko irudietako bat. JAIONE ASTIBIA

E. EZEIZA

Asteburu honetan IV. Langostino Moto Festa egingo dute Ibarrran. Motor zaleen urteroko zita bilakatu da hau dagoeneko. Langostino Moto Kultur Elkarteak antolatuta, joan den urtean 250 lagun inguru bildu ziren eskualdera, eta aurten jende gehiago espero dute. Ekitaldi gehienak doan izango dira, eta antolatzaileen esanetan, motozalea izan edo ez, «edonork hartu ahal izango du parte».

Jardueren artean, gaur *Show-bike*-a egingo dute. Norgehiagoka hau motoen *turning* txapelketa izango litzateke. Hau da, bi gurpiletako ibilgailu hauek norik hobekien atontzen eta prestatzen dituen sarituko da. Honez gain, kamisetak eta opariak izango dira parte-hartzaileentzat.

Bestalde, joan den urterako pentsatuta zuten saioetako bat, azkenean, aurten gauzatu ahal izango dute: Narcis Roca kataluniarra etorriko da. Estunman ospetsu honek hiru edo lau motor erabiliz, akro-

EGITARAUUA ▶
GAUR, LARUNBATA

14:00. Festa hasiera.
17:30. Jokoak.
19:30. *Stunman*.
21:00. Afaria.
23:30. Rock jaialdia eta DJa.
00:30. *Striptease*.

BIHAR, IGANDEA

09:00-10:00. Gosaria
10:30. Motorrekin bira.
 Bidean, hamaiketako egingo dute.
13:00. Ibarrra itzulera.
14:00. Bazkaria eta festa amaiera.

bazia erakustaldi bat egingo du. Motorra eta jaia uztartzen dituen festa honetako gosari, bazkari eta afarietan izena emateko, interesatuek, alde aurretik 27 euro ordaindu beharko dituzte. Honetarako, Euskadiko Kutxan kontu korronte bat ireki dute: 3035 0141 84 1410023232. Edo bestela, egunean bertan, 30 euro ordainduz egin ahal izango dute.

TOLOSA ▶ GIZARTEA


100 urte bete izana omenduz

E. Ezeiza ▶ Carmen Bilumbrales tolosarrak ehun urte bete ditu. Hori dela eta, Tolosako Udalak eta Gipuzkoako Foru Aldundiak omenalditxo bat egin zioten herenegun, plaka bat emanez, eta lore sorta bat eskainiz. Andoni Imaz izan zen, Udalaren ordekarri gisa, erre-galia eman ziona. N. LATABURU

zuhazki
Zurgindegia

Egurrezko leihoak, kontraleihoak, atek eta eskailerak neurriira

**JANTZI ZURE
ETXEA EGURREZ**

Tel.: 943 67 36 11 • Faxa: 943 67 36 55
 "Cuatro vientos" Industrialdea, 1
 Txarama auzoa • 20491 Leaburu

IRURA ▶ IV. GARAGARDO AZOKA

Lehenengo
tragoxkak
eman dituzte

I. Garcia ▶ Irurako Ikastolaren aldeko IV. Garagardo Azokan hasi ziren atzo lehenengo pitxerak zerbitzen. Ikastolaren eraikin berriaren lehenengo harria jartzen laguntzeko balioko du azokan jasotako dirua. Gaur eta bihar ere azoka izango da, 18:00etatik 01:00etara bitarte. Bi mesedealdi berean hara joanda: bata gorputza freskatzeko, eta bestea, hezkuntza euskaraz jasotzen jarraitzeko. I. GARCIA



ZIZURKIL ▶ KULTURA

Zaldiak, musika eta argiak,
gauaren magiaren pean

Pottok zalditegian egingo dute ikuskizuna gaur, 23:00etatik aurrera



Haur bat zaldi gainean, atzo, Pottok zalditegian. I. GARCIA

IMANOL GARCIA

Ravel, Vivaldi edo Mikel Laboaren musika entzuteko aukera izango da gaur gauean Zizurkilan. Horrela ikusita ez dirudi ezer berezirik egingo denik. Baina musikari zaldi eta zaldunen mugimenduak, gauaren magia eta argitapen berezia gehitzen badiogu, orduan bai, orduan zerbait bereziaren aurrean gaude. «Alemanian eta Frantzia egin dira horrelakoak. Han karruselak deitzen diote. Hemen inguruan ez da horrelakorik egin», dio Xabier Lizarribar Zizurkilgo Pottok zalditegiaren jabeak.

Zaldiak, musika eta argiak batera ikusteko aukera izango da, beraz, gaur 23:00etatik aurrera, Pottok '06 musiketari izena jarri diote. Lizarribarrez gain, Nerea Azurmendi zaldibegiralea eta Mirari Irurtzun musika irakaslea aritu dira antolaketan. «Mirarik bota zuen ideia, musika eta zaldiak batera jartzearena», dio Xabier Lizarribarrek. «(Kusgarritasuna emateko gauez egin behar da eta argiak erabili)».

Argiek zaldiei egingo dien eragina kezkatzen dio zalditegiaren jabeari. «Jendeari ohituta daude eta musikarekin ez dago arazorik. Baina argiekin ez dakigu nola erantzun dugun». Gaurko ikuskizunak ere badu berezitasun bat: musika zuzenean izango da. «Beste karruseletan zintak jartzen dituzte. Gaurkoan, musika zuzenean joko dute eta horrek dena sinkronizatuagoa egotera behartuko gaitu».

Zaldunen bi taldek hartuko dute parte ikuskizunean. Alde batetik haurrek eta bestetik helduak. Talde bakoitzak ekitaldi bana eskainiko du. Zalditegi bi begiraleek ere eskainiko dituzte beraien emanaldia. Tartean txalaparta entzuteko aukera ere izango da, eta haur talde batek Laboaren Txoria txori abestuko du aldiari buruzko testu bat irakurri ondoren.

Ikuskizunaren sarrerak hiru euro balio ditu. Parte-hartzaile guztiak boluntario ariko dira, baina «sarrera beharrezkoa da argitapenaren gastuei aurre egiteko», zehaztu du Lizarribarrek.

ANOETA ▶

UEUko
ikastaroetako
diru laguntzak

Udalak diru laguntzak banatu ditu UEUn ikastaroak egingo dituzten anoetarrei. Hilaren 17a baino lehen udaltxean aurkeztu behar dituztenak: eskaera-orria beteta (orria udaltxean eskatu); nortasun agiriaren fotokopia; banketxe edo aurrezki kutxak emandako agiria, kontu baten titularra dela egiaztatuz; banketxe edo aurrezki kutxak emandako ordainagiria, matrikularen diru-sarrera egin dela egiaztatuz; lan-egoera ziurtatuko duen agiriaren fotokopia (langabezian, jubilatua edo ikaslea); UEUk emandako ziurtagiria, ordaindu den matrikula-kopurua eta egin duen ikastaroa erakutsiz.

ZIZURKIL ▶

Koadrilen
Eguna ospatuko
dute gaur

Zizurkilan Koadrilen Eguna egingo dute gaur. 13:00etan hasiko dira, poteoarekin. Ondoren bazkaria egingo dute, 14:00ak aldera. Ondo bazkaldu eta gero, koadrilen arteko jokoak egingo dituzte.

ANOETA ▶

Pilota eta dantza
eskolan ordutegi
aldaketak

Haurrek dantza eta pilota eskolan matrikulatzeko aukera dute hilaren 7a arte. Ikasturtean izango dituzten ordutegiak aldatu egin dira. Dantza ostiraletan: txikiak 17:15etik 18:15era eta handiak 18:15etik 19:45era. Pilotan, astelehenetan, alebin 1ekoak 17:15etik 18:15era eta alebin 2koak 18:15etik 19:15era; asteartean, aurrebenjaminak 17:15etik 18:15era eta benjaminak 1-2koak 18:15etik 19:15era; asteazkenetan, alebinak 1-2koak 17:15etik 18:15era; ostiraletan benjaminak 2-1ekoak 17:15etik 18:15era eta infantilak eta kadeteak 18:15etik 19:15era.

▶ TOLOSALDEKO
HITZA.INFO

Eztabaida. Zer iruditzen zaizu Tolosako Gerontologiko berriaren proiektua?

TOLOSALDEKO BLUES

Ordua	Ordua	Ordua	Ordua
19:00 - 20:00	20:00 - 21:00	21:00 - 22:00	22:00 - 23:00
Musi Salazarri Carreras	Ray Blues	Paul Lamb & The King Blues	Nave Galt & Francisco Sordo & Edo Big Bands
23:00 - 00:00	00:00 - 01:00	01:00 - 02:00	02:00 - 03:00
Arriaga Leku Big Band			Elvira Browning Green

INSARIS **ERZULETA**

Jai zoriontsuak pasa herritar nahiz kanpotarrei!

Okindegia - Kafetegia - Cozotegia

KABELA

Zai gaituzte!

Nagusia, 3 - Tel. 943 69 64 05

ASTEASU

ALEGIA ▶ PILOTA



Hainbat txapela eskuratu dituzte Intxurre Pilota Eskolakoek, besteen artean, palakoa. HITZA

Intxurre Pilota Eskolak afariarekin denboraldi «borobila» bukatu du

Intxurre elkartearen egin zuten 40 lagun inguruk merienda, 54 neska-mutilen urteko ibilbide «ezin hobea» gogoratuz

ERREDAKZIOA

Afari-merienda bat eginez eman dio denboraldiari amaiera Intxurre Pelota Eskolak. Atzo izan zen Alegiako Intxurre Elkartearen, eta bertan bildu ziren pilotari gaztetxoak, eskolako bultzatzaile, laguntzaile eta gurasoak. Osotara, 40 bat pilotazale bildu ziren Intxurre elkartearen. Horien artean, 33 pilotari gazte inguru.

Intxurre Pilota Eskolaren arduradunen ustetan, aurtengo denboraldia «ezin hobea» izan da: 54 neska-mutil aritu dira entrenamendu eta trebatze saioetan, bakoitzak astean egun batetan, eta giro eta «modu bikainean» burutu dira guztiak. Horixe zen helburu na-

gusia eta horretan bete-betean asmatu dela uste dute; baina, horretaz gain, hainbat jardunaldi, topaketa, edota jai antolatu dituzte. Kale Beherako festetan, Eguberrietan eta kirol astean.

Oraindik herriko festetako zita falta zaie burutzeko. Horren aurretik, ordea, guztiak merienda baten bueltan ospatu nahi dute guztia eta horretarako bildu ziren atzokoan.

Eskolaren emaitzak

«Oso gustura» daude Intxurrekoak aurtengo jardunarekin, neskak eta mutilak kirolean pozik aritzea baitzen helburua eta agi denez, bete egin da.

Eskuz aritu izan dira orain

arte Irati Renobales, Argiñe Garmendia, Jose Luis Zabala, Mikel Artola eta Asier Alonso entrenatzaile lanak eginez, baina palako modalitateari ere artea ireki diote aurtengoan.

Gainera, jokatu berri den Tolosaldeko Topaketetan, Intxurrek bi kategorietan lortu du txapela etxera ekartzea. Hain zuzen ere, aurrebenjaminetan Gorka Altuna eta Aratz Irazustabarrena izan ziren garaile, eta alebinetan Eneko Lasa eta Iñaki Artola.

Karmenetako jaialdia burutzea bakarrik falta zaie, beraz, eta festa horietako azken egunean, hilak 17an, astelehena, arratsaldean, izango da, Elordi pilotalekuan jokatu diren partidekin.

ALBIZTUR ▶ HIRIGINTZA



Lurreko koskak errepidean jarrita, ibilgailuak motelago

N. U. ▶ Agenda 21en barruan, hainbat herritan herria hobetzeko jendeak eskatutako aldaketak ikusten hasiak dira. Besteak beste, azkenaldian Udaltaldean sartutako Albiztur herrian lurreen kotxeak mantsuago igarotzeko koskak ipini dituzte. Izan ere, herriko biztanleak autoen abiadura handiegiaz kezka ziren. N. U.

IBARRA ▶

Gimnastika erritmiko ikastaroa

Astelehenean hasiko da uztailean gimnastika erritmikoa landuko duen ikastaroa. Ibarako Belabieta kiroldegian izango da, eta Saioa Sorondo izango da irakaslea. Izena emateko honako telefonotara deitu behar da: 629 11 20 61 edo 943 67 15 44.

BERASTEGI ▶

Basurde elkarteak egoitza berria irekiko du

Basurde elkarteak gaur 18:00etan egingo du, lunch eta guzti, egoitza berriaren irekiera.

IKAZTEGIETA ▶

Jubilatuena bilerarako deialdia

Hurrengo astelehenean, hilaren 3an, ikaztegietakoa Udalak deitutako bilera egingo dute, herriko liburutegian. 11:00etatik aurrera izango da, eta herriko jubilatuak dago zuzenduta. Jubilatuen beharrak eta proposamenak izango dira kontuan.

ZUZENKETA ▶

Maria Juana Rivasen erreportaiaren datu oker azaldu ziren: Alfonsin jarri beharrean Videla jarri behar zuen, eta Maiatzeko Plazeko Amen taldea ez 1997ko apirilaren 20an sortu (data honetan lehen aldiz bildu ziren), 30ean baizik.

SELEKTIBITATEAN 2006. URTEAN %100 GAINDITUAK!

BATXILERGOAK
-Giza eta Gizarte Zientziak
-Natur eta Osasun Zientziak
-Tecnologikoa

LANBIDE HEZIKETA ZIKLOAK

Erdi Mailakoak
-Mekanizazioa
-Ekipo eta Instalazio Elektroteknikoak

Goi Mailakoak
-Proiektu Mekanikoen Garapena
-Instalazio Elektroteknikoak
-Gizarte eta Kultur Animazioa

KOLOKAZIO MAILA OSO ALTUA!
Enpresa-praktikak bertan eta atzerrian (aurten ipar irlandan, polonian eta lituanian)!

Matrikula epea:
ekainaren 30etik uztailearen 6 arte

SANTA BARBARA AUZOAN eta KARMELO LABAKA HERNANI
TELEFONOA: 943 551188
WEB: www.hernanibhi.com
E-MAILA: institutua@hernanibhi.com

SAN PEDRO JAIK ▶

Herri kirolak, bertsoak eta beste...

Areson, Asteasun, Leaburun eta Urkizun ekitaldi ugari izango dira gaur

IÑIGO TERRADILLOS

Eguraldia lagun zela, festa giroa nagusi izan zen atzokoan San Pedro jaiak ospatzen dituzten eskualdeko herrietan, hau da, Areson, Asteasun eta Leaburun. Areson, esaterako, atzo hasi zituzten jaiak herri afariarekin. Asteasun, berri, jubilatuen eta koadrilen eguna izan zen atzokoa; hala, jubilatuen hamaiketakoaren ostean, herri kirol saioak izan ziren ikusgai herriko plazan. Gazte zein heldu, jende ugari bertaratu zen harri-jasotze nahiz pisu jaurtiketa probak ikustera. Ondoren, Telleria eta Zeberio bertsolariak jarri ziren lanean. Jubilatuen eta herriko koadrila desberdinen bazkarien ostean, trikitilariak alaitu zuten giroa, eta haurrentzako jolasak ere prestatu zituzten. Afariaren aurretik Mulamboren doinuak izan ziren entzungai, eta gau partean trikitilarien erromeriak agurtu zuen atzokoa.

Leaburun, bestalde, txikienek Saharako egoera ezagutzeko aukera izan zuten, Garazi Hach Embarek saharar jatorrikoa izan baitzen hango kontuak kontatuz. Ondoren, hamaiketako hartu zuten gazte-txoek. Gauean, herri kirol proba berezia izan zen, astoa eta bi laguntzaile batetik eta sei lagun bestetik aurrez aurre jarri zituena, hain zuzen ere.

Gaurkoan, bai Asteasun, Areson eta Leaburun, bai eta Urkizun ere izango da zertaz gozatua, bereziki haurrentzako ekitaldiak izango direlarik.

GAUR ▶

ARESO

09:00. Gosaria.
10:00. Eskea baserrietan.
15:30. Bazkaria.
18:30. Musika plazan.
21:30. Afaria Pake-Tokin.
Ondoren. Musika.

ASTEASU

HAURREN EGUNA

11:00. Haurren arteko krosa.
11:00. Marrazki Lehiaketa.
13:00. Haurren bazkaria.
15:30. Arpegi margoketa.
17:00. XX. Mus Txapelketa Herrikoia frontoian.
18:00. Kale antzerkia: Atikus teatro taldeak aurkeztuta, *Unxitegieta*ko *kukumis meloa*.
Ondoren. Buruhandiak.
23:00. Abiba diskojaia goizalderarte.

LEABURU

15:30. Mus txapelketa Zazpi Bide elkartearen.
16:00. Ume jolasak eta txokolatada.
20:30. *Euskal Presoak Euskal Herrira* konzentrazioa. Argazkia aterako dute bailarako presoek bidaltzeko.
21:00. Herri afaria. Txartelak Ostatuan 25 eurotan. Amaia Agirre eta Jokin Uranga bertsolariak eta Saioa eta Alabier trikitilariak ariko dira.

URKIZU

20:00. Kanpaia jo eta suziriak botako dituzte.
21:00. Auzotarren afaria.
Ondoren, trikitilariak.



Leaburu. Saharar jatorriko Garazi Hach Embarek-en —ezkerrean— bisita izan zuten atzo herriko txikiek; ipuinak kontatu eta Saharako egoeraz mintzatu zen. Ondoren, hamaiketako hartu zuten. I. TERRADILLOS



Asteasu. Jende ugari hurbildu zen herriko plazara herri kirol saioak —goian, eta ezkerrean— ikustera. Bazkarian elkartu aurretik, bertsolarien saioaz —eskuinean— gozatzeko aukera izan zen. I. TERRADILLOS

TOLOSA ▶ AMAROZKO JAIK



Gaztetxoek ederki igaro dute jolasean

I. Terradillos ▶ Etxeko txikientzako jolasekin eman zuten atzo hasiera Amaro azoko jaiak; hauek gustura aritu ziren *piraten* konpainian jolasean. Egunean zehar hainbat ekitaldi izan ziren, gaurkoan bezala; izan ere, 08:00etatik hurrengo eguneko goizalderarte festak ez du etenik izango: diana, txirindulari proba, jolasak, mus txapelketa, danborrada, Disko Top Festa... I. TERRADILLOS

ARAMBURU
Alokatzeko, Salouen apartamentua 2 gelekina eta haize egokituarekin.
Alokatzeko, Pisuak.
Tolosan eta Anoetan.
Alokatzeko, Garajeak.
Araba etorbidean.
Salgai (Tolosako lurren). Ofizinala.
Salgai (Tolosa). Pisu Trinkete plazan. 78 m², garaje itxiko aukerarekin.
Salgai (Tolosa). Pisu San Frantzisko, Laskorain eta Larramendin.
Salgai (Garajeak).
Tolosako Leidor azpian eta Ibarren, karabana sartzeko garajea.
943 65 17 13 / 677 46 09 16

iragarki laburrak ▶

LANA

Zerbitzaria. Zerbitzaria behar da Tolosaldeko taberna baterako. Lanegun osorako.
677 32 99 34.

Tabernaria. Neska euskalduna behar da lau ordu lan egiteko, Tolosaldean. Eskarmentuduna.
635 74 52 91.

Tabernaria. Neska behar da tabernan lana egiteko.
658 74 62 87.

LEITZA ▶ GIZARTEA

Gorritzaranen festak gainez egingen du

Auzoko eguna egingen dute bihar, txintxurrin txapelketa ezaugarri dela

JAIONE ASTIBIA

Leitzako Kaxeta aldean trikiti doinurik, kirol ikuskizunik eta festa girorik ez da faltako inola ere bihar egun guztian zehar: Gorritzarango eguna egingen dute bertako auzotarrek eta bertara joateko aukeraz baliatuko den guztiak.

Ez dute aspertzeko betarik izanen; izan ere, egitarau bete-betea prestatu du auzotarrek eraturako Gorritzarango koardrilak, 10:00etako mezatik hasi eta gauerdik arteko dantzaldira.

Meza ondorenerako herri kirol saioa iragarri dute. Aizkola-

riekin hasiko dira. Laurak herriko semeak eta norgehiogoka puntuarekin, gainera, Zabalera eta Rekondo izanen dira batetik eta Olano eta Saralegi bestetik. Gero, nahi duen guztiak sokatiran parte hartzeko aukera izanen du eta gaztetxoenek bestelako jokoetan ere bai.

Bazkaltzera Basa Kabi hotelera sartu aurretik, otorduokan ere hantxe izanen diren bi bertolariren saioa entzuteko modua izanen da, hots, Peñagari-kano eta Murua. Eta bazkalondorea patxadatsu igarotzeko, musean ariko dira, 10na euro



Txintxurrin txapelketak —irudian izakoa— ikusle asko biltzen du. J. A.

EGITARAU ▶

10:00. Meza, kapilan.
Ondoren. Aizkolariak, sokatira eta umeentzat jokoak.
Ondoren. Bertsolariak.
14:00. Bazkaria, hotelean.
17:00. XXII. Mus txapelketa.
19:00. Dantzaldia.
20:00. XXII. Txintxurrin txapelketa.
20:30. Zozketa.
Ondoren. Txokolatea.

ordaintzen duten bikoteak. 22. txapelketa izanen dute aurtengoarekin; auzoko festaren ezaugarri den txintxurrin txapelketak bezala: neska eta mutil, lurrean dagoen txanpona ahalik eta urrutien uzten saiatuko dira, beti ere hankak arrastoaren atzean eta beso bakarraren gainean jarriz. Sariak txapelketetako irabazleen artean ez ezik egun osoan salduko dituzten boletoen eroslearen artean ere banatuko dituzte.

LEITZA ▶

Aurrera lanean aurrera jarraitzeko moduan da

Azken aukerako batzarrera ia 50 lagun azaldu eta batzordeak eratu gelditu ziren

J. ASTIBIA

Azken aukeran baina eratu gelditu ziren Aurrera Kirol Elkarteke zuzendaritza eta batzordeak ere, herenegun iluntzean egin zuten bazkideen batzarrean.

Halaxe jakin zuen atzo HITZAK. 50 bat bazkide bildu omen ziren batzarrera, elkar-tea itxi aurretik orain arteko arduradunek eman zuten azken aukera izaki. «Lanerako gogotsu» agertu zirelarik, «batzorde desberdinetan izena emanda» dute. Asteazkenean elkartuko omen dira ardurak zehazteko.

GIZARTEA ▶

Lekunberriko koartel berriaren aurka manifestaziora joateko dei egin dute

Lekunberrin egingen dute; plazatik abiatuko da, gaur, 19:00etan

ERREDAKZIOA

Lekunberrin egin nahi duten Guardia Zibilaren koartelaren aurka, herenegun manifestaziora deitu zuten bertako herritarrek eta eskualdera hedatu bertara joateko gonbidapena: gaur bertan, 19:00etan, Lekunberriko plazatik aterata egingen dute manifestazioa, «Bake garaian gerra egitera etorri zirenek alde egin behar dute. Utzi bakean Euskal Herria. Alde he-

mendik!» aldarriak buru hartuta.

Nafarroako Gobernuak Lekunberriko industrialdean 4.743 metro karratuko lursaila erosi eta Guardia Zibilari orain hartuta duten eraikinaren trukean ematea erabaki zuen maiatzean, bertan koartel berria eraiki dezaten.

Erabaki honen aurrean, Lekunberriko herritarrek koartelaren aurkako plataforma era-tua dute, beraiantzat «ulerkai-

tza eta bateraezina» baita «Euskal Herrian konponbide demokratikorantz bideratuta une politiko garrantzitsua bizi dugun garaian, eraikuntza polizial eta errepresibo berriak eraiki nahi izatea». Halaxe adierazi zuten herenegungo agerraldian. Gai honetan Lekunberriko Udala izaten ari den jokabidea ere salatu zuten, «herriari bizkarra emanda» proiektu horri bere oneritza eman diolako.

LEITZA ▶ KIROLAK

Plazako XIV. Pilota Txapelketak finala gaur

Aldaia-Olano eta Alduntzin-Sagastibeltza doaz txapelaren bila; 19:00etan hasiko da

ERREDAKZIOA

Gaur jokatu dute Plazako Eskuz Binakako XIV. Pilota Txapelketako finala.

19:00etatik aurrera, pilota ikuskizuna izanen da Leitzako plazan; izan ere, maiatzaren 20az geroztik astebururo herriko pilotazaleen parte-hartzearekin jokatu den txapelketak azken saioa izanen du: txapela lortzeko borrokatuko

dira Aldaia-Olano eta Alduntzin-Sagastibeltza bikoteak.

Hori baino lehen, ordea, aurretik jokatu duten pilota partidari, txapelketako 3. eta 4. lekuak finkatuko dituzte, final-aurrekotan galdu zuten bikoteen artean, alegia, Bengoetxea-Gartzia eta Makatzaga anaiak ariko dira.

Lagunarteko lehia izanik ere, fin asko eta zinez aritzen dira pilotariak lanean.

▶ hilberriak
▶ urteurrenak
▶ eskertzak

**Gipuzkoan
50.000 eixetara**

HITZA guztietan prezio beragatik.

ESKELAK
19:00ak arte hartzen dira
Telf.: 943 65 56 95
tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info

hilberria ▶

Gixane Soto
(Joxean Aldalurren emaztea)



IRUTXULOKO HITZAK
dolumina azaldu nahi dio
Josean Aldalur
gure laguntzaileari
une latz hauetan

DONOSTIA, 2006ko ekainaren 30a

urteurrena ▶

Maria Pilar Mujika Mujika

(I. urteurrena)
-Goian bego-

Saminean,
esperantzaz mintzatu.
Pozak eta penak ditugun arren,
elkartasunak lagunduko digu
heriotza gainditu eta
bizitzan aurrera eginen



Haren urteurrena zelebratzeko UZTAILAREN 2AN, 11:15EAN, SAN JUAN BATAIATZALEA parroki elizan izango da meza.

Ahizpa, anaia, ilobak eta familia osoaren partetik

ALEGIAN, 2006ko uztailaren 1ean

Harpidedunei banatua ▶ 2006ko uztailaren 1a, larunbata ▶ IV. urtea

'HITZA' LAGUNTZEN DUTEN ERAKUNDEAK

Gipuzkoako Foru Aldundia

Eusko Jauriaritza, Kultura Saila

GAURKO EGURALDIA



AGENDA ▶

DEIALDIAK

Leitza. Zaldi Eguna, egun osoan, Inguruarte zelaian: mendi marxa, erakusketa, perraketa, haurrentzako zaldiak, espainiar eta wester heziera, gurdiak, heziera naturala...

19:00etatik aurrera, kale animazioa Amama Luisa Big Band taldearekin.

GUARDIAKO FARMAZIAK

Gaur

Leitza. Larraia, M. I. Elbarren, 95. 112.
Tolosa. Olarreaga, A. Korreo kalea, 2. 943 67 01 28.

IRRATIA

Txolarre (107.5, 101.2 FM) 10:30-13:00. *Hitzak* hegazi magazina.
Goiko irratia (107.0 FM) 13:00. *Kornerra* magazina.

▶ **HITZA**k ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.

MUSIKA

Tolosa. Tolosandblues: Stay Blues, 20:00etan, Frontoian; Paul Lamb & The King Snakes, 22:00etan, Plaza Berrian; Naco Goñi, Francisco Simon eta Edu Big Hands, 00:30etan, Frontonen; eta

Urtebete ateak zabalik

VILLABONA ▶ Urdapileta duela urtebete okupatu zuela ospatuko du gaur Onddo Gazte Asanbladak, «denontzako ekitaldiekin»

ERREDAKZIOA

Urtebete beteko da gaur Onddo Gazte Asanbladak Urdapileta etxea, Villabonako Gaztetxea, okupatu zuena. Eta tarte horretan ekin-tza asko egin ditu: jolasak, antzerkiak, kontzertuak, koadrila arteko olimpiadak, timbal ikastaroak, barazki kooperatiba bat ere badago... «Urte hau oso aberasgarria izan da, jende berria ezagutuz gain ikusi ahal izan dugulako Udalaren jarre-ra gazteenganako», diote.

Ez daudela oso momentu goxoan azaldu dute: «Guk beti irtenbidetzat Haur Eskola beste nonbaiten egitea ikusi dugu, behar duguna badugulako; Udalak Haur Eskola bertan kapritxoz nahi duelako, guretzat besterik bilatzea dirua alferrik gastatzea dela ikusten dugu. Hala ere, Udalarekin hizketan gabilta nora bidali nahi gaituzten jakiteko. Hasiera batean herriatik kanpo bidali nahi gintuzten, eta baita lurrzaira ere. Horregatik, gure jarrera mantenduko genuela eta eskatutako baldintzak betetzen ez baziren Urdapileta ez genuela utziko esan genion Udalari». Egungo haurtzaindegia Aldundiarena denez, hara ere jo dute Gaztetxeok eta Udalak, eta



Urtebete honetan Villabonako gaztetxean hainbat ekintza burutu dituzte. HITZA

«Aldundiaren erantzunaren zain» daude orain. «Guk argi dugu Gaztetxea zergatik, zertarako eta nola erabiliko dugun. Behar-beharrezkoa da jendeak jakitea herriarena dela, edonor sar daitেকেela, denona baita. Egin dugun lana alferrik gal ez dadin *Hazi, hezi, bizi, antolatu eta sortu-z* aurrera segiko dugu». Eskerrak eman nahi dizkiete ere «urte honetan lagundu eta animatu gaituzuen guztioi eta ondoko bizilagunei, gurekin elkarbizitzeagatik», eta gaurko urtemugako ekitaldietan parte hartzera ere animatu dute jendea, *Herri bat, Gaztetxe bat* aldarria eginez.



URTE ASKOAN

Aitor Agirrebarrena. Zurekin gaude beti, baina gaur bereziki. Zorionak! Zure Lizartzako osaba-izebak eta lehengusua.



ZORIONAK, ANDONI ETA AITOR

Laster zarete gurekin. Jo ta ke!




ZORIONAK, TARZANITO

Amnistia gertu da. Hurrengo urtean elkar ospatuko dugu.



URTE ASKOAN

Ibai Gabirondo (Alegia). Gaur 8 urte. Zorionak familiaren partetik.



URTE ASKOAN, AMONA!

Malloak margotuz, iriak sortuko ditugu, gure borroka delako dugun mailtasunik ederrena. Gure irrifar eta muiurik goxo bezain iraultzaileenak. Haimar eta Ira. Onddo pasa eguna ta betiko moduan, aurrera!